3. La información sobre las personas cuya desaparición se haya señalado, de conformidad con el párrafo 1, y las solicitudes de dicha información serán transmitidas directamente o por conducto de la Potencia protectora, de la Agencia Central de Búsqueda del Comité Internacional de la Cruz Roja, o de las Sociedades nacionales de la Cruz Roja (Media Luna Roja, León y Sol Rojos).

Cuando la información no sea transmitida por conducto del Comité Internacional de la Cruz Roja y de su Agencia Central de Búsqueda, cada Parte en conflicto velará por que tal información sea también facilitada a esa Agencia.

4. Las Partes en conflicto se esforzarán por ponerse de acuerdo sobre disposiciones que permitan que grupos constituidos al efecto busquen, identifiquen y recuperen los muertos en las zonas de campo de batalla; esas disposiciones podrán prever, cuando proceda, que tales grupos vayan acompañados de personal de la Parte

Hitzarmenen edo Protokolo honen arabera baldintza onuragarriagoak ez dituzten pertsonen kasuan:

- a) IV. Hitzarmenaren 138. artikuluan xedatutako moduan pertsona horiei buruzko informazioa erregistratu, baldin eta horiek atxilotu, espetxeratu edo beste edozein modutan gatibu hartu badira bi aste baino gehiago, liskarren edo okupazioaren ondorioz edota atxilotetak iraun duen bitartean hil denean;
- b) ahal den neurrian, erraztu eta, beharrezkoa bada, bilaketa egin eta pertsona horien inguruko informazioa erregistratu beste inguruabar batzuetan hil badira, liskarren edo okupazioaren ondorioz.

3. Zein pertsonen desagertpena adierazi eta pertsona horiei buruzko informazioa, 1. paragrafoarekin bat etorritik, eta informazio horren eskaerak zuzenean edo potentzia babeslearen bidez, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen Bilaketa Agentzia Zentralaren bidez, edo Gurutze Gorriaren Sozietate nazionalen bidez (Ilargi Erdi Gorria, Lehoia eta Eguzki Gorriak) igorriko dira.

Informazioa Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak eta bere Bilaketa Agentzia Zentralak igorri ez badute, gatazkan dagoen alderdi bakoitza arduratuko da informazioa Agentzia horrek izan dezaten.

4. Gatazkan dauden alderdiak, bataila-eremu guneetan hildakoak bilatu, identifikatu eta berreskuratzeko eraturako taldeak, horretan aritzea ahalbidetuko dute, horretarako beharrezko diren xedapenak adosten ahaleginduko dira; xedapen horiek aurreikus dezakete, halakoa bidezkoa denean, talde horiek kontrako

adversa mientras lleven a cabo esas misiones en zonas controladas por ella.

El personal de tales grupos deberá ser respetado y protegido mientras se dedique exclusivamente a tales misiones.

Artículo 34: Restos de las personas fallecidas

1. Los restos de las personas fallecidas a consecuencia de la ocupación o mientras se hallaban detenidas por causa de la ocupación o de las hostilidades, y los de las personas que no fueren nacionales del país en que hayan fallecido a consecuencia de las hostilidades, deben ser respetados y las sepulturas de todas esas personas serán respetadas, conservadas y marcadas según lo previsto en el artículo 130 del IV Convenio, en tanto que tales restos y sepulturas no se beneficien de condiciones más favorables en virtud de los Convenios y del presente Protocolo.

2. Tan pronto como las circunstancias y las relaciones entre las Partes adversas lo permitan, las Altas Partes contratantes en cuyos territorios se encuentren las tumbas y, en su caso, otros lugares donde se hallen los restos de las personas fallecidas como consecuencia de las hostilidades, durante la ocupación o mientras se hallaban detenidas, celebrarán acuerdos a fin de:

a) facilitar a los miembros de las familias de los fallecidos y a los representantes de los servicios oficiales de registro de tumbas el acceso a las sepulturas, y determinar las disposiciones de orden práctico para tal acceso;

b) asegurar la protección y el mantenimiento permanentes de tales

alderdiaren langileekin batera joan daitezela beraien eginkizuna alderdi horrek kontrolatutako guneeetan gauzatzen dituzten bitartean.

Talde horien langileek errespetatu eta babestuko dira eginkizun horietan soil-soilean jarduten duten bitartean.

34. artikulua: Hildako pertsonen gorpuzkiak

1. Okupazioaren ondorioz edo okupazioa edo liskarrak direla eta, atxilotuta zeuden bitartean hildako pertsonen gorpuzkiak, eta liskarren ondorioz hil diren pertsonenak, pertsona horiek zein herrialdetan hil eta herrialde horren nazionalak ez direnean, errespetatu egin behar dira eta pertsona horien guztien hilobiak errespetatu, zaindu eta markatu egin behar dira, IV. Hitzarmenaren 130. artikuluan ezarritakoaren arabera, baldin eta gorpuzki eta hilobi horiek Hitzarmenen eta Protokolo honen arabera baldintza onuragarriagoak ez badituzte.

2. Kontrako alderdien arteko inguruabarrek eta harremanek ahalbidetu bezain laster, alderdi kontratugile gorenek, euren lurraldeetan badira hilobiak edo, hala denean, beste leku batzuk ere, bertan direla liskarren ondorioz, okupazioak iraun duen bitartean edo atxilotuta zeuden bitartean hildako pertsonen gorpuzkiak, halako akordioak egingo dituzte ondorengo helburuekin:

a) hildakoen familia-kideei eta hilobien erregistro zerbitzu ofizialen ordezkarietara iristea erraztea, eta bertaratzeko xedapen erabilgarriak zehaztea;

b) hilobien babesa eta zaintza iraunkorra ziurtatzea;

sepulturas;

c) facilitar la repatriación de los restos de las personas fallecidas y la devolución de los efectos personales al país de origen, a solicitud de ese país o, salvo que el mismo se opusiera a ello, a solicitud de los parientes más próximos.

3. A falta de los acuerdos previstos en los apartados b) o c) del párrafo 2 y si el país de origen de esas personas fallecidas no está dispuesto a sufragar los gastos correspondientes al mantenimiento de tales sepulturas, la Alta Parte contratante en cuyo territorio se encuentren tales sepulturas podrá ofrecer facilidades para la devolución de los restos al país de origen.

Si tal ofrecimiento no fuera aceptado, la Alta Parte contratante, transcurridos cinco años desde la fecha del ofrecimiento y previa la debida notificación al país de origen, podrá aplicar las disposiciones previstas en su legislación en materia de cementerios y sepulturas.

4. La Alta Parte contratante en cuyo territorio se encuentren las sepulturas a que se refiere el presente artículo sólo podrá exhumar los restos:

a) en virtud de lo dispuesto en el apartado c) del párrafo 2 y en el párrafo 3, o

b) cuando la exhumación constituya una necesidad imperiosa de interés público, incluidos los casos de necesidad sanitaria o de investigación administrativa o judicial, en cuyo caso la Alta Parte contratante deberá guardar en todo momento el debido respeto a los restos y comunicar al país de origen su intención de exhumarlos, transmitiéndole detalles sobre el lugar en que se propone darles nueva

c) hildakoen gorpuzkiak aberriratzeta eta euren gauzak euren jatorrizko herrialdera itzultzea erraztea, herrialde horrek hala eskatuta, edo herrialde hori kontra agertzen bada, senide hurbilenek hala eskatuta.

3. 2. paragrafoaren b) edo c) ataletan ezarritako akordiorik egon ezean eta hildakoen jatorrizko herrialdea prest ez badago hilobiaren zainketa-gastuak ordaintzeko, hilobia zein alderdi kontratugile gorenen lurraldean egon eta horrek erraztasunak eskainiko ditu gorpuzkiak jatorrizko herrialdera itzultzeko.

Halako eskaintza onartzen ez bada, alderdi kontratugile gorenak, eskaintza datatik bost urte igarota eta jatorrizko herrialdeari aurretiaz egin beharreko jakinarazpena eginda, bere legerian hilerri eta hilobien inguruko xedapenak ezar ditzake.

4. Artikulu honetan barruan hartzen dituen hilobiak zein lurraldetan egon eta horri dagokion alderdi kontratugile gorenak gorpuzkiak hilobitik atera ahal izango ditu bakar-bakarrik ondorengo kasuetan:

a) 2. paragrafoaren c) atalean eta 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, edo

b) hilobitik ateratzeak interes orokorreko premiazko beharra denean, osasun beharrezana edo administrazio- edo epai-ikerketak barne, kasu horretan alderdi kontratugile gorenak gorpuzkiei zor zaien errespetua gorde beharko die une oro eta jatorrizko herrialdeari horiek hilobitik ateratzeko duen asmoa adierazi, eta gorpuzkiak zein lekutan hilobiratuko dituzten eta horren xehetasunak eman.

sepultura.

Título III: Métodos y medios de guerra -- Estatuto de combatiente y de prisionero de guerra

Sección I -- Métodos y medios de guerra

Artículo 35: Normas fundamentales

1. En todo conflicto armado, el derecho de las Partes en conflicto a elegir los métodos o medios de hacer la guerra no es ilimitado.
2. Queda prohibido el empleo de armas, proyectiles, materias y métodos de hacer la guerra de tal índole que causen males superfluos o sufrimientos innecesarios.
3. Queda prohibido el empleo de métodos o medios de hacer la guerra que hayan sido concebidos para causar, o de los que quepa prever que causen, daños extensos, duraderos y graves al medio ambiente natural.

Artículo 36: Armas nuevas

Cuando una Alta Parte contratante estudie, desarrolle, adquiera o adopte una nueva arma, o nuevos medios o métodos de guerra, tendrá la obligación de determinar si su empleo, en ciertas condiciones o en todas las circunstancias, estaría prohibido por el presente Protocolo o por cualquier otra norma de derecho internacional aplicable a esa Alta Parte contratante.

Artículo 37: Prohibición de la perfidia

1. Queda prohibido matar, herir o capturar a un adversario valiéndose de medios pérfidos.
- Constituirán perfidia los actos que, apelando a la buena fe de un adversario con intención de traicionarla, den a entender a éste que tiene derecho a protección, o que está obligado a concederla, de conformidad

III. Titulua: Gerra-metodo eta -baliabideak – Armadun jendearen eta gerrako presoen estatutua

I. Atala – Gerra-metodoak eta -balia bideak

35. artikulua: Oinarrizko arauak

1. Gatazka armatu guztietan, gatazkan dauden alderdiek gerra egiteko metodo eta baliabideak aukeratzeko eskubidea ez da mugagabea.
2. Debekatuta gelditzen da armak, jaurtigaiak, materialak eta gerra egiteko metodoak erabiltzea, horiek, euren izaeragatik, behar ez diren gaitzak edo sufrimenduak sortzen badituzte.
3. Debekatuta gelditzen dira gerra egiteko metodo edo baliabideak erabiltzea, horiek ingurumen naturalari kalte handiak, iraunkorrak eta larriak eragiteko asmatu badira, edota halakoak eragin ditzaketela aurreikusten bada.

36. artikulua: Arma berriak

Alderdi kontratugile goren batek, arma berria, edo gerrarako baliabide eta metodo berriak aztertu, garatu, eskuratu edo bereganatzen dituenean, zehaztu beharko du ea horien erabilera debekatuko duen, baldintza jakin batzuetan edo egoera guztietan, Protokolo honek edo alderdi kontratugile goren horri aplikagarri zaion nazioarteko zuzenbidearen bestelako arauen batek.

37. artikulua: Zitalkeriaren debekua

1. Debekatuta gelditzen da aurkaria hiltzea, zauritzea edo harrapatzea zitalkeria bideak erabiliz.
- Zitalkeria egintzak izango dira, aurkariaren fede ona baliatzea, hori traizionatzeko asmoarekin, aurkariari ulertaraztea babes eskubidea duela, edo babesa ematera behartuta dagoela, gatazka armatuetan

con las normas de derecho internacional aplicables en los conflictos armados.

Son ejemplos de perfidia los actos siguientes:

a) simular la intención de negociar bajo bandera de parlamento o de rendición;

b) simular una incapacitación por heridas o enfermedad;

c) simular el estatuto de personal civil, no combatiente; y

d) simular que se posee un estatuto de protección, mediante el uso de signos, emblemas o uniformes de las Naciones Unidas o de Estados neutrales o de otros Estados que no sean Partes en el conflicto.

2. No están prohibidas las estratagemas.

Son estratagemas los actos que tienen por objeto inducir a error a un adversario o hacerle cometer imprudencias, pero que no infringen ninguna norma de derecho internacional aplicable en los conflictos armados, ni son pérfidos ya que no apelan a la buena fe de un adversario con respecto a la protección prevista en ese derecho.

Son ejemplos de estratagemas los actos siguientes: el camuflaje, las añagazas, las operaciones simuladas y las informaciones falsas.

Artículo 38: Emblemas reconocidos

1. Queda prohibido hacer uso indebido del signo distintivo de la cruz roja, de la media luna roja o del león y sol rojos o de otros emblemas, signos o señales establecidos en los Convenios o en el presente Protocolo.

Queda prohibido también abusar deliberadamente, en un conflicto armado, de otros emblemas, signos o señales protectores internacionalmente

aplikagarri diren nazioarteko zuzenbidearen arauekin bat etorritz.

Zitalkeria adibideak dira ondorengo egintzak:

a) parlamentu- edo amore emate -banderarekin negoziatzeko asmoaren itxurak egitea;

b) zauriengatik edo gaixotasunagatik ezgaitasunen baten itxura egitea;

c) armadun ez den pertsona zibilaren estatutuaren itxura egitea; eta

d) babes estatutua duenaren itxura egitea, Nazio Batuen edo estatu neutralen edo gatazkan alderdi ez diren beste estatu batzuen ikurrak, ezaugarriak edo uniformeak erabiliz.

2. Gerra-amarruak ez daude debekatuta.

Gerra-amarruak dira aurkaria nahasmendura edo zuhurtziagabekeriak egitera bultzatzen dituzten egintzak, gatazka armatuetan aplikagarri diren nazioarteko zuzenbidearen arauetatik bat bera ere urratzen ez dutenak, eta zitalak ere ez direnak, ez baitute aurkariaren fede onera jotzen, eskubide horretan aurreikusitako babesari dagokionez.

Gerra-amarru adibideak dira ondorengo egintzak: kamuflajea, azpijokoak, itxurazko eragiketak eta informazio faltsuak.

38. artikulua: Aitortutako ezaugarriak

1. Debekatuta gelditzen da gurutze gorriaren, ilargierdi gorriaren edo lehoiaren eta eguzki gorrien edo Hitzarmenetan edo Protokolo honetan ezarritako beste ezaugarri, ikur edo seinaleen erabilera desegokia egitea.

Debekatuta gelditzen da baita ere, hala nahita horiek gehiegikeriaz erabiltzea, gatazka armatuan, nazioarte mailan onartutako beste ezaugarri, ikur- edo

reconocidos, incluidos la bandera de parlamento y el emblema protector de los bienes culturales.

2. Queda prohibido hacer uso del emblema distintivo de las Naciones Unidas, salvo en los casos en que esa Organización lo autorice.

Artículo 39: Signos de nacionalidad

1. Queda prohibido hacer uso en un conflicto armado de las banderas o de los emblemas, insignias o uniformes militares de Estados neutrales o de otros Estados que no sean Partes en el conflicto.

2. Queda prohibido hacer uso de las banderas o de los emblemas, insignias o uniformes militares de Partes adversas durante los ataques, o para cubrir, favorecer, proteger u obstaculizar operaciones militares.

3. Ninguna de las disposiciones del presente artículo o del artículo 37, párrafo 1, d), afectará a las normas existentes de derecho internacional generalmente reconocidas que sean aplicables al espionaje o al uso de la bandera en el desarrollo de los conflictos armados en el mar.

Artículo 40: Cuartel

Queda prohibido ordenar que no haya supervivientes, amenazar con ello al adversario o conducir las hostilidades en función de tal decisión.

Artículo 41: Salvaguardia del enemigo fuera de combate

1. Ninguna persona podrá ser objeto de ataque cuando se reconozca o, atendidas las circunstancias, debe reconocerse que está fuera de combate.

2. Está fuera de combate toda persona:

a) que esté en poder de una Parte

babes-zeinuak, parlamentuaren bandera eta kultura-ondasunen babes-ezaugarria barne direla.

2. Debekatuta gelditzen da Nazio Batuen ezaugarri bereizgarria erabiltzea, baldin eta erakunde horrek horretarako baimena ematen ez badu.

39. artikulua: Naziokotasun ikurrak

1. Debekatuta gelditzen da gatazka armatuan estatu neutralen edo gatazkan alderdi ez diren beste estatu batzuen banderak, edo militar izaerako ezaugarriak, bereizgarriak edo uniforme militarrek erabiltzea.

2. Debekatuta gelditzen da erasoek irauten duten bitartean, kontrako alderdiaren banderak edo militar izaerako ezaugarriak, bereizgarriak edo uniforme militarrek erabiltzea; berebat, eragiketa militarrek estali, aldeztu, babestu edo oztopatzeke.

3. Artikulu honen edo 37. artikulua 1. paragrafoaren d) puntuko xedapenetatik bat bera ere ez da eragingarria izango, orokorrean onartuta dauden nazioarteko zuzenbidearen arauen aurrean, horiek espioitzari edo itsasoko gatazka armatuen garapenean bandera erabiltzeari buruz ari direnean.

40. artikulua: Kuartela

Debekatuta gelditzen da inor bizirik ez gelditzeko agindua ematea, aurkaria horrekin mehatxatzea edo liskarrak erabaki horren arabera gidatzea.

41. artikulua: Etsaiaren zaintza borrokatzeko gai ez dela.

1. Inor ezin daiteke erasopean jarri aitortzen denean, edo aitortu behar denean, inguruabarrak kontuan izanda, pertsona hori dagoeneko borrokatzeko gai ez dela.

2. Ez da borrokatzeko gai, halako pertsona:

a) kontrako alderdi baten esku

adversa;

b) que exprese claramente su intención de rendirse; o

c) que esté inconsciente o incapacitada en cualquier otra forma a causa de heridas o de enfermedad y sea, por consiguiente, incapaz de defenderse; y siempre que, en cualquiera de esos casos, se abstenga de todo acto hostil y no trate de evadirse.

3. Cuando las personas que tengan derecho a la protección de que gozan los prisioneros de guerra hayan caído en poder de una Parte adversa en condiciones de combate inhabituales que impidan su evacuación en la forma prevista en la Sección I del Título III de III Convenio, serán liberadas, debiendo adoptarse todas las precauciones posibles para garantizar su seguridad.

Artículo 42: Ocupantes de aeronaves

1. Ninguna persona que se lance en paracaídas de una aeronave en peligro será atacada durante su descenso.

2. Al llegar a tierra en territorio controlado por una Parte adversa, la persona que se haya lanzado en paracaídas de una aeronave en peligro deberá tener oportunidad de rendirse antes de ser atacada, a menos que sea manifiesto que está realizando un acto hostil.

3. Las tropas aerotransportadas no quedarán protegidas por este artículo.

Sección II - Estatuto de combatiente y de prisionero de guerra

Artículo 43: Fuerzas armadas

1. Las fuerzas armadas de una Parte en conflicto se componen de todas las fuerzas, grupos y unidades armados y organizados, colocados bajo un mando responsable de la conducta de sus

dagoena;

b) garaituta dagoelako asmoa modu argian adierazten duena; edo

c) konortetik gabe edo beste edozein modutan ezgaituta dagoena zauriak edo gaixotasunaren ondorioz, eta horrenbestez, bere burua defendatzeko gai ez dena; eta betiere, horrelako edozein kasutan, aurkako egintza oro egitea saihesten duena eta ihes egiten saiatzen ez dena.

3. Gerrako presoek babes berbera edukitzeko eskubidea duten pertsonak, kontrako alderdi baten esku erori direnean ezohiko borroka baldintzetan, hain zuzen ere, horien eskutik ateratzea oztopatzen dituzten baldintzetan eta III. Hitzarmenaren III. tituluaren I. atalean ezarritakoaren arabera, askatuko dituzte, eta euren segurtasuna bermatzeko arretak jarriko dute.

42. artikulua: Aireontzietako bidaiariak

1. Arriskuan dagoen aireontzi batetik paraxutean salto egiten duen inori ez zaio erasorik egingo, horren jaitzierak irauten duen bitartean.

2. Kontrako alderdi batek kontrolatutako lurraldean, arriskuan dagoen aireontzitik paraxutean salto egin eta lur hartzen duen pertsonak, berari erasorik egin aurretik, garaituta dagoela aitortzeko aukera izango du, eraso izan aurretik, agerikoa ez bada arerio-egintza bat egiten ari dela.

3. Artikulu honek ez ditu airez garraiatutako tropak babesten.

II. Atala - Armadunen eta gerrako presoek estatutua

43. artikulua: Indar armatuak

1. Gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuak osatzen dute indar, talde eta unitate armatu eta antolatu guztiek; horiek jarrita daude agintari arduradun baten azpian eta agintari hori da bere

subordinados ante esa Parte, aun cuando ésta esté representada por un gobierno o por una autoridad no reconocidos por una Parte adversa.

Tales fuerzas armadas deberán estar sometidas a un régimen de disciplina interna que haga cumplir, inter alia, las normas de derecho internacional aplicables en los conflictos armados.

2. Los miembros de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto (salvo aquellos que formen parte del personal sanitario y religioso a que se refiere el artículo 33 del III Convenio) son combatientes, es decir, tienen derecho a participar directamente en las hostilidades.

3. Siempre que una Parte en conflicto incorpore a sus fuerzas armadas un organismo paramilitar o un servicio armado encargado de velar por el orden público, deberá notificarlo a las otras Partes en conflicto.

Artículo 44: Combatientes y prisioneros de guerra

1. Todo combatiente, tal como queda definido en el artículo 43, que caiga en poder de una Parte adversa será prisionero de guerra.

2. Aunque todos los combatientes están obligados a observar las normas de derecho internacional aplicables en los conflictos armados, la violación de tales normas no privará a un combatiente de su derecho a ser considerado como tal o, si cae en poder de una Parte adversa, de su derecho a ser considerado prisionero de guerra, salvo lo dispuesto en los párrafos 3 y 4.

3. Con objeto de promover la protección de la población civil contra los efectos de las hostilidades, los combatientes están obligados a distinguirse de la

menpekoen jokaeraren erantzulea alderdi horren aurrean, nahiz eta alderdi hori gobernu batek ordezkaturia izan edota kontrako alderdi batek aintzakotzat hartzen ez duen agintari batek ordezkaturia izan.

Halako indar armatuak barneko diziplina erregimenaren menpe egon beharko dira, gatazka armatuetan aplikagarri diren nazioarteko zuzenbidearen arauak, inter alia, betearaziko dituen.

2. Gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuen kideak (III. Hitzarmeneko 33. artikuluan aipatzen diren osasun eta erlijio arloko langileak izan ezik) armadunak dira, hau da, liskarretan zuzenean parte hartzeko eskubidea dute.

3. Gatazkan dagoen alderdi batek bere indar armatuei erakunde paramilitarra edo ordena publikoa zaintzeko ardura duen zerbitzu armatua gehitzen dien guztietan, halakoa gatazkan dauden beste alderdiei jakinarazi beharko die.

44. artikulua: Armadunak eta gerrako presoak

1. Armadun oro, 43. artikulua xedatutakoaren arabera, kontrako alderdi baten menpe geratzen dena, gerrako preso da.

2. Armadun guztiak gatazka armatuetan aplikagarri diren nazioarteko zuzenbidearen arauak betetzera behartuta egon arren, arau horiek urratzeak ez dio armadunari ukatuko armaduna izateko eskubidea eta, aurkako alderdi baten menpe geratzeak ez dio gerrako preso izateko eskubidea kenduko, 3 eta 4. paragrafoak xedatutakoa salbu.

3. Liskarren ondorioen aurka biztanleria zibilaren babesa sustatzeko helburuarekin, armadunak behartuta daude biztanleria zibilarengandik euren

población civil en el curso de un ataque o de una operación militar preparatoria de un ataque.

Sin embargo, dado que en los conflictos armados hay situaciones en las que, debido a la índole de las hostilidades, un combatiente armado no puede distinguirse de la población civil, dicho combatiente conservará su estatuto de tal siempre que, en esas circunstancias, lleve sus armas abiertamente:

- a) durante todo enfrentamiento militar; y
- b) durante el tiempo en que sea visible para el enemigo mientras está tomando parte en un despliegue militar previo al lanzamiento de un ataque en el que va a participar.

No se considerarán como actos pérfidos, en el sentido del apartado c) del párrafo 1 del artículo 37, los actos en que concurran las condiciones enunciadas en el presente párrafo.

4. El combatiente que caiga en poder de una Parte adversa y no reúna las condiciones enunciadas en la segunda frase del párrafo 3, perderá el derecho a ser considerado como prisionero de guerra, pero, no obstante, recibirá las protecciones equivalentes, en todos los sentidos, a las otorgadas a los prisioneros de guerra por el III Convenio y el presente Protocolo.

Esta protección comprende las protecciones equivalentes a las otorgadas a los prisioneros de guerra por el III Convenio en el caso de que tal persona sea juzgada y sancionada por cualquier infracción que haya cometido.

5. El combatiente que caiga en poder de una Parte adversa mientras no participa en un ataque ni en una operación militar preparatoria de un ataque, no perderá, a consecuencia de

burua bereiztera eraso baten edo eraso bat prestatzeko eragiketa militarren bitartean.

Hala eta guztiz ere, gatazka armatuetan, liskarren izaeraren arabera, badira egoera batzuk, non armadunak biztanleria zibilarengandik bere burua bereizteko ezintasuna dagoen; kasuotan armadunak bere estatutua gordeko du, baldin eta inguruabar horietan bere armak agerian eramaten baditu, noiz eta:

- a) liskar militarrek irauten duen bitartean; eta
- b) arerioarentzat ageriko den denboran, zabaltze militarrean parte hartzen ari den bitartean, zabaltze hori aurretiaz egiten dela, hark parte hartu behar duen erasoaren hasiera izan baino lehenago.

Ez dira zitalkeria egintza gisa hartuko, 37. artikulua 1. paragrafoaren c) atalaren arabera, paragrafo honetan zerrendatutako baldintzak biltzen dituzten egintzak.

4. Kontrako alderdi baten menpe geratzen den armadunak, 3. paragrafoaren bigarren esaldian zerrendatutako baldintzak betetzen ez dituenak, gerrako preso izateko eskubidea galduko du, baina, hala ere, babes baliokideak jasoko ditu, esanahi guztietan, III. Hitzarmenak eta Protokolo honek gerrako presoiei ematen dizkietenak.

Babes honek III. Hitzarmenak gerrako presoiei emandako babesen baliokide direnak barneratzen ditu, baldin eta pertsona hori, egin duen edozein arau-hausterengatik epaitu edo zehatua izan bada.

5. Kontrako alderdi baten menpe geratzen den armaduna eraso batean edo eraso bat prestatzeko eragiketa militar batean parte hartzen ari ez den bitartean, bere aurreko egintzen

sus actividades anteriores, el derecho a ser considerado como combatiente y prisionero de guerra.

6. El presente artículo no privará a una persona del derecho a ser considerada como prisionero de guerra conforme al artículo 4 de III Convenio.

7. El propósito del presente artículo no es modificar la práctica generalmente aceptada por los Estados en lo que respecta al uniforme que han de llevar los combatientes pertenecientes a las unidades armadas regulares y uniformadas de una Parte en conflicto.

8. Además de las categorías de personas mencionadas en el artículo 13 de los Convenios I y II, todos los miembros de las fuerzas armadas de una Parte en un conflicto, tal como se definen en el artículo 43 del presente Protocolo, tendrán derecho a la protección concedida en virtud de esos Convenios si están heridos o enfermos o, en el caso del II Convenio, si son náufragos en el mar o en otras aguas.

Artículo 45: Protección de personas que han tomado parte en las hostilidades

1. La persona que participe en las hostilidades y caiga en poder de una Parte adversa se presumirá prisionero de guerra y, por consiguiente, estará protegida por el III Convenio cuando reivindique el estatuto de prisionero de guerra, cuando parezca tener derecho al mismo, o cuando la Parte de que dependa reivindique ese estatuto en su favor mediante una notificación a la Potencia detenedora o a la Potencia protectora.

Si hubiere alguna duda respecto a su derecho al estatuto de prisionero de guerra, tal persona continuará beneficiándose de este estatuto y, en consecuencia, seguirá gozando de la

ondorioz ez du galduko armadun eta gerrako preso moduan hartua izateko eskubidea.

6. Artikulu honek ez dio inori kenduko gerrako preso gisa hartua izateko eskubidea, III. Hitzarmenaren 4. artikuluekin bat etorritz.

7. Artikulu honen asmoa ez da estatuek ohiko duten eginera eraldatzea; izan ere, eginera hori dagokio halako uniformeari, hain zuzen, gatazkan dagoen alderdi baten unitate armatu erregeladunek eta uniformatutakoek eraman beharreko uniformeari.

8. I. eta II. Hitzarmenetako 13. artikuluan aipatutako pertsonen kategoriez gain, gatazkan dagoen alderdi bateko indar armatuetako kide guztiek, Protokolo honen 43. artikulua zehazten dituen horiek, Hitzarmen horrek emandako babeserako eskubidea izango dute, baldin eta zaurituta edo gaixorik badaude eta, II. Hitzarmenaren kasuan, itsasoan edo beste ur batzuetan galdutakoak badira.

45. artikulua: Liskarretan parte hartu duten pertsonen babesa

1. Liskarretan parte hartzen duen pertsona eta kontrako alderdi baten menpe geratzen dena, gerrako preso dela uste izango da eta, horrenbestez, III. Hitzarmenak babestuko du gerrako preso estatutua eskatzen duenean, horretarako eskubidea baduela ematen duenean, edota zein alderdiren menpe egon eta alderdi horrek estatutu hori eskatzen duenean presoaren mesedetan, atxiloketa egin duen potentziari edo potentzia babesleari igorritako jakinarazpenaren bitartez.

Gerrako preso estatuturako eskubiderik duen ala ez zalantzazkoa bada, orduan pertsona horrek estatutu honen onurak izaten jarraituko du eta, hainbatez, III. Hitzarmenaren eta Protokolo honen

protección del III Convenio y del presente Protocolo hasta que un tribunal competente haya decidido al respecto.

2. La persona que, habiendo caído en poder de una Parte adversa, no esté detenida como prisionero de guerra y vaya a ser juzgada por esa Parte con motivo de una infracción que guarde relación con las hostilidades podrá hacer valer su derecho al estatuto de prisionero de guerra ante un tribunal judicial y a que se decida esta cuestión.

Siempre que no sea contrario al procedimiento aplicable, esa cuestión se decidirá antes de que el tribunal se pronuncie sobre la infracción.

Los representantes de la Potencia protectora tendrán derecho a asistir a las actuaciones en que deba dirimirse la cuestión, a menos que, excepcionalmente y en interés de la seguridad del Estado, tales actuaciones se celebren a puerta cerrada.

En este caso, la Potencia en cuyo poder se encuentre la persona informará al respecto a la Potencia protectora.

3. La persona que haya tomado parte en las hostilidades y no tenga derecho al estatuto de prisionero de guerra ni disfrute de un trato más favorable de conformidad con lo dispuesto en el IV Convenio, tendrá derecho en todo momento a la protección del artículo 75 del presente Protocolo.

Tal persona, cuando se encuentre en territorio ocupado y siempre que no se halle detenida como espía, disfrutará también, no obstante lo establecido en el artículo 5 del IV Convenio, de los derechos de comunicación previstos en ese Convenio.

Artículo 46: Espías

1. No obstante cualquier otra

babesa izaten, auzitegi eskudunak horren inguruan erabaki arte.

2. Kontrako alderdi baten menpe geratu eta gerrako preso gisa atxilotuta ez dagoen pertsona, alderdi horrek epaitzeko asmoa duenean liskarrekin zerikusia duen arau-haustea dela eta, aukera izango du pertsona horrek auzitegi judicialaren aurrean berak duen gerrako preso estatuturako eskubidea egikaritzeko eta auzi hau ebatzia izan dadin.

Aplikagarri den prozeduraren aurkakoa ez den guztietan, auzitegiak arau-haustearen inguruan epaia eman baino lehen, auzi hori ebatziko du.

Potentzia babeslearen ordezkariak auzia ebatzi behar den ekitaldietara joateko eskubidea izango dute, salbu eta, estatuaren segurtasunaren onerako, egintza horiek atea itxita egiten direnean.

Kasu horretan, pertsona zein potentziaren esku egon eta potentzia horrek potentzia babeslea informatuko du gai honen inguruan.

3. Liskarretan parte hartu duen pertsonak, gerrako preso estatutua izateko eskubiderik ez badu, eta IV. Hitzarmenean ezarritakoarekin bat etorritik, tratu mesedegarriagoa gozaten ez badu ere, Protokolo honen 75. artikulua babesa izateko eskubidea izango du une oro.

Halako pertsona, lurralde okupatuetan dagoenean eta betiere espia bezala atxilotuta ez dagoenean, IV. Hitzarmenaren 5. artikuluan ezarritakoa gorabehera, Hitzarmen horretan aurreikusitako komunikazio eskubideen gozamenen ere izango du.

46. artikulua: Espioiak

1. Hitzarmenen eta Protokolo honen

disposición de los Convenios o del presente Protocolo, el miembro de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto que caiga en poder de una Parte adversa mientras realice actividades de espionaje no tendrá derecho al estatuto de prisionero de guerra y podrá ser tratado como espía.

2. No se considerará que realiza actividades de espionaje el miembro de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto que, en favor de esa Parte, recoja o intente recoger información dentro de un territorio controlado por una Parte adversa siempre que, al hacerlo, vista el uniforme de las fuerzas armadas a que pertenezca.

3. No se considerará que realiza actividades de espionaje el miembro de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto que sea residente en territorio ocupado por una Parte adversa y que, en favor de la Parte de que depende, recoja o intente recoger información de interés militar dentro de ese territorio, salvo que lo haga mediante pretextos falsos o proceda de modo deliberadamente clandestino.

Además, ese residente no perderá su derecho al estatuto de prisionero de guerra y no podrá ser tratado como espía a menos que sea capturado mientras realice actividades de espionaje.

4. El miembro de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto que no sea residente en territorio ocupado por una Parte adversa y que haya realizado actividades de espionaje en ese territorio, no perderá su derecho al estatuto de prisionero de guerra y no podrá ser tratado como espía a menos que sea capturado antes de

edozein xedapen gorabehera, gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuetako kidea, kontrako alderdiaren menpe geratzen dena espioitza egintzak gauzatzen dituen bitartean, ez da gerrako preso estatutuaren barnean izateko eskubidearen pean egongo eta espioi gisa tratatua izan daiteke.

2. Ez da uste izango espioitza egintzetan ari dela gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuetako kidea, baldin eta horrek alderdi horren mesedetan egiten baditu egintzak, kontrako alderdiak kontrolatutako lurraldean informazioa jasotzeko edo jasotzen ahalegintzeko, betiere, hori egiterakoan zein indar armatuetako kidea izan eta horren uniformeak jantzita badarama.

3. Ez da uste izango espioitza egintzetan ari dela gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuetako kidea, horren egoitza kontrako alderdiak okupatutako lurraldean badago eta horrek, zein alderdiren menpe egon eta alderdi horren mesedetan, interes militarreko informazioa jasotzen badu edo jasotzen saiatzen bada lurralde horren barnean, salbu eta aitzakia faltsuak erabiltzen dituenean edo berariaz ezkutuan badihardu.

Halaber, bertan egoitza duen horrek ez du gerrako preso estatutua izateko duen eskubidea galduko eta ezin izango da espioi gisa tratatu, baldin eta harrapatua ez bada izan espioitza egintzak egiten diharduela.

4. Gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuetako kideak, horren egoitza ez badago kontrako alderdiak okupatutako lurraldean eta lurralde horretan espioitza egintzak gauzatu baditu ere, ez du gerrako preso estatutu eskubidea galduko eta ezin izango da espioi gisa tratatu, baldin eta, zein indar armatuetako kidea izan eta indar

reintegrarse a las fuerzas armadas a que pertenezca.

Artículo 47: Mercenarios

1. Los mercenarios no tendrán derecho al estatuto de combatiente o de prisionero de guerra.
2. Se entiende por mercenario toda persona:
 - a) que haya sido especialmente reclutada, localmente o en el extranjero, a fin de combatir en un conflicto armado;
 - b) que, de hecho, tome parte directa en las hostilidades;
 - c) que tome parte en las hostilidades animada esencialmente por el deseo de obtener un provecho personal y a la que se haga efectivamente la promesa, por una Parte en conflicto o en nombre de ella, de una retribución material considerablemente superior a la prometida o abonada a los combatientes de grado y funciones similares en las fuerzas armadas de esa Parte;
 - d) que no sea nacional de una Parte en conflicto ni residente en un territorio controlado por una Parte en conflicto;
 - e) que no sea miembro de las fuerzas armadas de una Parte en conflicto; y
 - f) que no haya sido enviada en misión oficial como miembro de sus fuerzas armadas por un Estado que no es Parte en conflicto.

Título IV: Población civil

Sección I: Protección general contra los efectos de las hostilidades

Capítulo I: Norma fundamental y ámbito de aplicación

Artículo 48: Norma fundamental

A fin de garantizar el respeto y la protección de la población civil y de los bienes de carácter civil, las Partes en conflicto harán distinción en todo

armatu horietara berriz itzuli baino lehen harrapatua bada.

47. artikulua: Mertzenarioak

1. Mertzenarioek ez dute armadun edo gerrako preso estatutua izateko eskubidea izango.
2. Mertzenario gisa hartuko dira ondorengo pertsona guztiak:
 - a) tokian bertan edo atzerrian, gatazka armatu batean borrokatzeko helburuarekin errekrutatu dena;
 - b) egitez, liskarretan zuzenean parte hartzen duena;
 - c) liskarretan parte hartzen duena, gehienbat, onura pertsonala lortzeko nahiak bultzatuta eta pertsona horri gatazkan dagoen alderdi batek edo horren izenean agintzen badio ordainketa materiala, alderdi horren indar armatuetan antzeko maila eta zereginetako armadunei eskaini edo ordaintzen zaiena baino askoz handiagoa.
 - d) gatazkan dagoen alderdi baten naziokoa ez dena ezta gatazkan dagoen alderdi batek kontrolatutako lurralde batean egoitza duena;
 - e) gatazkan dagoen alderdi baten indar armatuetako kidea ez dena; eta
 - f) gatazkan alderdi ez den estatu batek bere indar armatuen kide gisa misio ofizialean bidalia izan ez dena.

IV. titulua: Biztanleria zibila

I. Atala: Liskarren ondorioen aurkako babes orokorra

I. Kapituluak: Oinarrizko araua eta aplikazio-eremua

48. artikulua: Oinarrizko araua

Biztanleria zibilaren eta izaera zibileko ondasunen errespetua eta babesa bermatzeko helburuarekin, gatazkan dauden alderdiek une oro bereiziko

momento entre población civil y combatientes, y entre bienes de carácter civil y objetivos militares y, en consecuencia, dirigirán sus operaciones únicamente contra objetivos militares.

Artículo 49: Definición de ataques y ámbito de aplicación

1. Se entiende por "ataques" los actos de violencia contra el adversario, sean ofensivos o defensivos.

2. Las disposiciones del presente Protocolo respecto a los ataques serán aplicables a todos los ataques en cualquier territorio donde se realicen, inclusive en el territorio nacional que pertenezca a una Parte en conflicto, pero que se halle bajo el control de una Parte adversa.

3. Las disposiciones de la presente Sección se aplicarán a cualquier operación de guerra terrestre, naval o aérea que pueda afectar en tierra a la población civil, a las personas civiles y a los bienes de carácter civil.

Se aplicarán también a todos los ataques desde el mar o desde el aire contra objetivos en tierra, pero no afectarán de otro modo a las normas de derecho internacional aplicables en los conflictos armados en el mar o en el aire.

4. Las disposiciones de la presente Sección completan las normas relativas a la protección humanitaria contenidas en el IV Convenio, particularmente en su Título II, y en los demás acuerdos internacionales que obliguen a las Altas Partes contratantes, así como las otras normas de derecho internacional que se refieren a la protección de las personas civiles y de los bienes de carácter civil contra los efectos de las hostilidades en tierra, en el mar o en el aire.

Capítulo II: Personas civiles y

dituzte biztanleria zibila eta armadunak, izaera zibila duten ondasunak eta helburu militarrekoak eta, horren ondorioz, bakar-bakarrik helburu militarren aurka zuzenduko dituzte euren eragiketak.

49. artikulua: Erasoen definizioa eta aplikazio-eremua

1. "Erasoak" bezala ulertzen dira aurkariaren kontrako indarkeria egintzak, horiek erasorako zein defentsarakoak izan.

2. Protokolo honetan diren xedapenak, erasoei buruzkoak, eraso guztiei aplikatuko zaizkie, edozein dela horiek gauzatzen diren lurraldea, gatazkan dagoen alderdi baten nazio lurraldea barne, halakoa kontrako alderdiaren kontrolpean dagoenean.

3. Atal honetako xedapenak lehorreko nahiz itsasoko nahiz aireko edozein gerra- eragiketari aplikatuko zaio, horrek lehorrean biztanleria zibilari, pertsona zibilei eta izaera zibileko ondasunei buruzko eragina duenean. Itsasotik edo airetik lehorreko helburuen aurkako eraso guztiei ere aplikatuko zaie baina ez dituzte ukituko beste modu batez, itsasoko nahiz aireko gatazka armatuei aplikagarri zaizkien nazioarteko zuzenbidearen arauak.

4. Atal honetako xedapenek IV. Hitzarmenean jasotako babes humanitarioari buruzko arauak osatzen dituzte, batik bat, bere II. tituluan, eta alderdi kontratugile gorenak behartzen dituzten gainontzeko nazioarteko akordioetan; orobat, nazioarteko zuzenbidearen gainontzeko arauak, halakoak lehorreko, itsasoko edo aireko liskarren ondorioen aurka pertsona zibilen eta izaera zibileko ondasunen babesari dagozkionean.

II. Kapituluua: Pertsona zibilak eta

población civil

Artículo 50: Definición de personas y de población civil

1. Es persona civil cualquiera que no pertenezca a una de las categorías de personas a que se refieren el artículo 4, A. 1), 2), 3), y 6), del III Convenio, y el artículo 43 del presente Protocolo.

En caso de duda acerca de la condición de una persona, se la considerará como civil.

2. La población civil comprende a todas las personas civiles.

3. La presencia entre la población civil de personas cuya condición no responda a la definición de persona civil no priva a esa población de su calidad de civil.

Artículo 51: Protección de la población civil

1. La población civil y las personas civiles gozarán de protección general contra los peligros procedentes de operaciones militares.

Para hacer efectiva esta protección, además de las otras normas aplicables de derecho internacional, se observarán en todas las circunstancias las normas siguientes.

2. No serán objeto de ataque la población civil como tal ni las personas civiles.

Quedan prohibidos los actos o amenazas de violencia cuya finalidad principal sea aterrorizar a la población civil.

3. Las personas civiles gozarán de la protección que confiere esta Sección, salvo si participan directamente en las hostilidades y mientras dure tal participación.

4. Se prohíben los ataques indiscriminados.

Son ataques indiscriminados:

a) los que no están dirigidos contra un

biztanleria zibila

50. artikulua: Pertsonen eta biztanleria zibilaren definizioa

1. Pertsona zibila da III. Hitzarmenaren 4, A. 1), 2), 3) eta 6) artikuluan, eta Protokolo honen 43. artikuluan aipatzen diren pertsona mota desberdinetan baneraturik ez daudenak.

Pertsona baten izaeraren inguruan zalantzak egonez gero, zibila dela uste izango da.

2. Biztanleria zibilak pertsona zibil guztiak baneratzeko ditu.

3. Biztanleria zibilaren barruan pertsona zibilaren definizioarekin bat ez datorren norbait egoteak ez dio biztanleria horri bere zibil izaera kentzen.

51. artikulua: Biztanleria zibilaren babesa

1. Biztanleria zibilak eta pertsona zibilek eragiketa militarretatik eratorritako arriskuaren aurkako babes orokorra izango dute.

Babes hori eragingarria izateko, aplikagarri diren nazioarteko zuzenbidearen gainontzeko arauak gain, inguruabar guztietan, ondorengo arauak ere kontuan hartuko dira.

2. Biztanleria zibila eta pertsona zibilak, izaera hori izateagatik, ez dira erasoerak jomuga izango.

Debekatuta gelditzen dira indarkeria egintzak eta mehatxuak, horien helburu nagusia biztanleria zibila izutzea denean.

3. Pertsona zibilek atal honek eskaintzen duen babesa izango dute, salbu eta liskarretan zuzenean parte hartzen dutenean eta parte hartze horrek irauten duen bitartean.

4. Bereizketarik gabeko erasoak debekatzen dira.

Bereizketarik gabeko erasoak dira:

a) xede militar zehatz baten aurka

objetivo militar concreto;

b) los que emplean métodos o medios de combate que no pueden dirigirse contra un objetivo militar concreto; o

c) los que emplean métodos o medios de combate cuyos efectos no sea posible limitar conforme a lo exigido por el presente Protocolo; y que, en consecuencia, en cualquiera de tales casos, pueden alcanzar indistintamente a objetivos militares y a personas civiles o a bienes de carácter civil.

5. Se considerarán indiscriminados, entre otros, los siguientes tipos de ataque:

a) los ataques por bombardeo, cualesquiera que sean los métodos o medios utilizados, que traten como objetivo militar único varios objetivos militares precisos y claramente separados situados en una ciudad, un pueblo, una aldea u otra zona en que haya concentración análoga de personas civiles o bienes de carácter civil;

b) los ataques, cuando sea de prever que causarán incidentalmente muertos y heridos entre la población civil, o daños a bienes de carácter civil, o ambas cosas, que serían excesivos en relación con la ventaja militar concreta y directa prevista.

6. Se prohíben los ataques dirigidos como represalias contra la población civil o las personas civiles.

7. La presencia de la población civil o de personas civiles o sus movimientos no podrán ser utilizados para poner ciertos puntos o zonas a cubierto de operaciones militares, en especial para tratar de poner a cubierto de ataques

zuzentzen ez direnak;

b) xede militar zehatz baten aurka zuzendu ezin daitezkeen borroka metodoak edo bideak erabiltzen dituztenak; edo

c) Protokolo honen arabera, erasoen ondorioak mugatzea ezinezko egiten duten erasoak, horiek horretarako halako borroka-metodoak eta -baliabideak erabiltzen badituzte. eta aurrekoaren ondorioz, kasu horietariko edozeinetan, eraso horiek bereizketarik gabe helburu militarrek eta pertsona zibilak edo izaera zibileko ondasunak ukitu ditzaketanak.

5. Bereizketarik gabekoak dira, besteak beste, ondorengo eraso motak:

